

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA) 2004ko 1. hiruhilekoa

Landunak mantendu egin dira eta langabeak 2.000 gutxiago dira Euskal AEn 2004ko lehenengo hiruhilekoan

Langabezia-tasa %8,6an kokatu da, 2003ko laugarren hiruhilekoaren bi hamarren azpitik.

Eustatek zabaltzen duen Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) sailkatze Inkestaren arabera, 2004ko lehenengo hiruhilekoan, Euskal AEko lan-merkatuan 897.300 landun zenbatu ziren, aurreko hiruhilekoan beste. Bestalde, langabezia-tasa aurreko hiruhilekoan estimatutako %8,8tik %8,6ra jaitsi da.

2003ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuz, biztanleria langabeak 2.000 laguneko jaitsiera izan du eta langabezia-tasak 0,2 puntukoa. Biztanleria landunaren eta langabearen bilakaeraren ondorioz, jarduera-tasa %54,9ra heldu da.

Gizonezkoen langabezia-tasa %7ra igo da (lau hamarren gehiago) eta emakumeena, askoz ere altuagoa izan arren (%10,9koa), ehuneko puntu bat jaitsi da. Gazteen langabezia-tasa ia bi puntu jaitsi da eta 16tik 24 urtera bitarteko bost gazte aktibotik bat baino apur bat gehiago harrapatzen du (%20,9).

2004ko lehenengo hiruhilekoko Euskal AEko langabezia-tasa Eurogunekoaren azpitik dago, bi hamarren azpitik. EUROSTAT- Europar Batasuneko Estatistika Bulegoaren arabera, 2004ko otsailean, langabezia-tasa %8,8ra iritsi zen gunen honetan. Beste aldi batzuetan bezala, Europar Batasun guztiko tasa (%8) apur bat txikiagoa da Eurogunekoa baino.

Emakumezkoen langabeziaren jaitsierak eragin du, batez ere, langabeziaren jaitsiera

Gizonezko langabeen kolektiboak 39.300 lagun hartzen ditu, 1.800 lagun gehiago. Emakumezkoen artean, 3.800ek utzi zioten langabe izateari azken hiruhilekoan eta orain 45.500 dira langabeak. 16tik 24 urtera bitarteko taldea nabarmen jaitsi da (-1.400) eta 25etik 44 urte bitartekoena ere bai (-1.500).


Langabezia-tasa ehuneko puntu bat jaitsi da Bizkaian, baina Araba eta Gipuzkoan zazpina hamarren gehitu dituzte

Langabe-kopurua 84.800ekoa da lehenengo hiruhilekoan. Bizkaian jaitsi egin da eta Araban eta Gipuzkoan igo. Bizkaian 47.600 lagun daude langabezian, orain dela hiru hilabete baino 5.000 gutxiago, oraindik ere bere %9,3ko langabezia-tasa hiru lurraldeetan altuena den arren. Gipuzkoan, 25.700 dira langabetuak, 2.100 lagun gehiago, eta tasa %7,9ra igo da. Arabak 800 langabe gehiago ditu, langabeziak 11.400 laguni eragiten die eta langabezia-tasa %7,8ra igo da.

Bizkaiak 7.000 landun irabazi ditu, baina Arabak 3.400 galdu ditu eta Gipuzkoak 3.500, 2004ko lehenengo hiruhilekoan

Landunen kopurua 897.300ekoa da, 2003ko laugarren hiruhilekoko zifra bera. Lurraldeka, Bizkaian bakarrik igo dira landunak, 7.000 enplegu gehiagorekin. Gipuzkoak 3.500 galdu ditu eta Araba antzera ibili da (3.400 landun gutxiago).

Biztanleria landunaren joera, 1985tik. Euskal AE. (milakotan)



Iturria: EUSTAT

Zerbitzuetan 9.600 enplegu sortzeak gainerako sektoreetako galerak berdindu ditu

2003ko laugarren hiruhilekoaren aldean, lau sektore ekonomikoetatik bakarrean gehitu dira landunak, zerbitzuetan, 9.600 enplegatu gehiagorekin. Industriak 5.300 enplegu galdu ditu, Eraikuntzak 3.900 eta Nekazaritzak 400.

Euskal AEko biztanleria landunaren aldakuntzak desberdin eragin die gizonezkoei eta emakumezkoei. Emakumezkoek bilakaera ona izan dute eta aurreko hiruhilekoan baino 7.900 gehiago dira landunak. Zifra bereko jaitsiera izan dute gizonezkoek.

Okupazio-tasa, 16tik 64 urtera bitarteko biztanleen kopuruaren gainean landunek duten ehunekoa, %63,6koa da, hots, hiru hilabete lehenago baino bi ehuneko-hamarren gehiago. Tasa hori gizonezkoentzako %74,4koa da eta emakumezkoentzako, berriz, %52,8koa.

Lurralde historikoka, landunen tasarik altuena Gipuzkoakoa da, %66,4koa, sei hamarreneko jaitsierarekin. Araba du atzetik %66ko tasarekin eta ehuneko 2 puntuko jaitsierarekin. Azkenik, Bizkaikoa dugu tasarik baxuena, %61,3koa, baina berau izan da 2003ko laugarren hiruhilekoaren aldean hazkundera izan duen herrialde bakarra (ehuneko 1,2 puntu).

Hiru etxegunetatik ia bitan (%62,9), kide guztiak ari dira lanean. Hala ere, azken hiru hilabeteen, 5.100ek utzi egin diote pertsona aktibo guztiak lanean izateari. Beste alde batetik, Euskal AEn zenbatutako 731.500 etxeguneeetatik, kide aktibo guztiak

langabezian dituzten etxeguneak %2,7 dira eta proportzio hori ez da aldatu 2003ko azkeneko hiruhilekotik.

Zerbitzuen sektorean 23.900 enplegu garbi sortu ziren 2003ko lehenengo hiruhilekoaren aldean, baina gainerako sektoreetan 14.100 suntsitu ziren

Biztanleria landuna %1,1 hazi da, 2003ko lehenengo hiruhilekoaren aldean, eta 9.900 gehiago dira landunak. Okupazio-tasa ehuneko puntu bat igo da: ehuneko 2,2 puntuko igoera izan da emakumezkoentzat, eta gizonezkoentzat, aldiz, bi hamarreneko jaitsiera. Lurralde historikoka, azken hamabi hilabeteetan, Bizkaiko (1,5) eta Gipuzkoako (0,8) tasak hazi egin dira, eta Arabakoa, oster, sei hamarren jaitsi da.

Azken urtean, Zerbitzuen sektoreak 23.900 enplegu garbi sortu ditu. Hala ere, Industriak pisua galtzen jarraitzen du eta 6.200 landun gutxiago ditu; Eraikuntzak 6.700 galdu ditu eta Nekazaritzak 1.200.

Langabezia-tasa hiru lurralde historikoetan jaitsi da azken urtebetean

Azken urtean, langabezia lau hamarren jaitsi da Euskal AEn. Sexuaren arabera, emakumezkoetan ehuneko bederatzi hamarren jaitsi da, eta gizonezkoetan, bi. Gazteen langabezia-tasa ehuneko 1,5 puntu erori da eta 45 urte eta gehiagokoen taldekoa zazpi hamarren hazi da. Jaitsiera hiru lurralde historikoetan izan da: Araban ehuneko -1,1 puntu gutxiago, Gipuzkoan -0,5 eta Bizkaian -0,2.

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA)

	2004ko 1. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko beraren aldean	
	Milakoak	%	Milakoak	%	Milakoak	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.787,6		-2,1		-6,6	
AKTIBOAK/ I HARDUERA TASA	982,1	54,9	-2,0	-0,0	+6,1	+0,5
Gizonezkoak	564,7	65,4	-6,1	-0,5	-6,2	-0,4
Emakumezkoak	417,4	45,2	+4,1	+0,4	+12,3	+1,4
BIZTANLERIA LANDUNA/ ENPLEGU-TASA	897,3	63,6	+0,0	+0,2	+9,9	+1,0
Gizonezkoak	525,4	74,4	-7,9	-0,7	-4,7	-0,2
Emakumezkoak	371,9	52,8	+7,9	+1,1	+14,5	+2,2
Araba	134,9	66,0	-3,4	-2,0	-0,4	-0,6
Bizkaia	462,9	61,3	+7,0	+1,2	+7,6	+1,5
Gipuzkoa	299,6	66,4	-3,5	-0,6	+2,8	+0,8
Nekazaritza	18,0		-0,4		-1,2	
Industria	241,2		-5,3		-6,2	
Eraikuntza	77,9		-3,9		-6,7	
Zerbitzuak	560,2		+9,6		+23,9	
LANGABEAK/ LANGABEZI-TASAK	84,8	8,6	-2,0	-0,2	-3,7	-0,4
Gizonezkoak	39,3	7,0	+1,8	+0,4	-1,5	-0,2
Emakumezkoak	45,5	10,9	-3,8	-1,0	-2,2	-0,9
16 - 24	18,4	20,9	-1,4	-1,9	-2,6	-1,5
25 - 44	53,3	9,2	-1,5	-0,2	-3,6	-0,7
45 eta gehiago	13,1	4,1	+0,9	+0,3	+2,6	+0,7
Araba	11,4	7,8	+0,8	+0,7	-1,8	-1,1
Bizkaia	47,6	9,3	-5,0	-1,0	-0,5	-0,2
Gipuzkoa	25,7	7,9	+2,1	+0,7	-1,5	-0,5
Lehen enplegu bila	10,1	11,9	-1,2		-2,3	
Urte 2 edo gehiago darama enplegu bila	15,3	18,0	+1,8		+0,9	
EZ-AKTIBOAK EZ-AKTIBOTASUN TASA	805,5	45,1	-0,1	+0,0	-12,8	-0,5
ETXEBIZITZAK	731,5		-6,5		-9,1	
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	531,8	72,7	-8,9		+0,7	
- Guztiak okupatuak	459,9	62,9	-5,1		+1,8	
- Guztiak langabeak	19,8	2,7	-0,4		+1,0	
Aktiborik gabeko etxebizitzak	199,8	27,3	+2,5		-9,8	

Iturria: EUSTAT
Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

 Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

 Harremanetarako pertsona: M^a José Santamaría Gallardo

Tel.: +34-945 017 533. Faxa: +34-945 017 501

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

 Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.as